

Martxoaren 12ko hauteskundeak

Redondo: «EAJ eta PP dira euskal gatazkak irtenbidea aurkitu ez izanaren errudunak»

Beraiek su-etena «era ezberdin batean gestionatuko luketela» dio PSE-EEko buruak

Asier Errasti / Donostia

Nicolas Redondo Terreros PSE-EEko idazkari orokor-
rak atzo adierazi zue-
nez, «EAJ, Lizarrako
estrategiarekin, eta PP,
bere bakartze bokazioa-
rekin, dira euskal gataz-
kak irtenbidea aurkitu ez
izanaren erredunak». Ildo
horretan, sozialistek ETA-
ren su-etena «era ezber-
din batean gestionatuko
luketela» nabarmendu
zuen PSE-EEko buruak.

ESPAINIAKO hauteskunde
orokorretara begira PSE-EEK
kaleratutako «Elkarrizketa
eta bakeagatik» manifestua
aurkeztu zuen atzo goizean
Donostiako Miramar Jaure-
gian Nicolas Redondo Terre-
ros buruzagi sozialistak. Bere
alderdiko hautagai ezberdi-
nak eta buruzagi ugari ber-
tan zeudela —tartean atzo
Gasteizen izandako atenta-
tuan eraildako Fernando
Buesa—, PP eta EAJren arte-
ko ika-mikek eragindako
«polarizazio negatiboa» eta
ETAren su-etena iraundako
denboran bi alderdiek izan-
dako desadostasunak kriti-
katu zituen. Ildo horretan,
zera azpimarratu zuen: «EAJ
eta PPK, Arzalluz eta Mayor
Oreja jaunek, ardura berdina
daukate gatazkak irtenbide-
rik aurkitu ez izanagatik,
muturreko joeretatik elkar
elikatzen baitute».

Hori bai, «polemika gordin
horren azpitik», PPK EAJri
hauteskunde osterako «kon-
tzeru ekonomikoaren onu-
razko negoziazioa» eskaini
diola adierazi zuen Redon-
dok. Aldiz, sozialistek «lege



Nicolas Redondo eta PSE-EEK EAE aurkeztutako hautagaiak Donostian atzo egindako ekitaldian.

Agiriaren ardatzak

«Elkarrizketa eta bakeagatik»

PSE-EEK atzo kaleratutako «Elkarrizketa eta bakeagatik» mani-
festuak —gasteleraz bakarrik idatzia dago— hainbat gai jorratzen
ditu. Hona hemen horietako batzuk:

ETAko su-etenenaren gestioa • «Bai EAJ bai PP ez dira gai
izan ETAren su etena ausardiaz eta erantzunkizunaz ku-
deatzeko, bere muga guztiekin, guztiz ireki beharreko
itxaropenezko lehio txikia zenean. PP eta EAJren politika
alderdikoak ETARI su etena apurtzea eragotziko lioken el-
karrizketa politikoa bultzatzea eragotzi die».

Elkarrizketa • «Indarrean dagoen legalitate politiko eta ins-
tituzionaletik abiatuta, euskal alderdien elkarrizketa poli-
tikoa bultzatzearen alde gaude eta borondate irmoa dugu
adostasunarekin eta inposizioz gabe hitzartzen duguna
errespetu dezala eskatzeko Estatuko botere publikoei».

Politika soziala • «Konpromiso argia hartzen dugu lana
sortzearen alde, lan prekarietatearen aurka, 35 orduko
lan astearen alde, ABLEem arauak berrikuzteko eta gu-
txieneko langabezi laguntza eta soldatak handitzeko».

mailako ziurgabetasunarekin
eta etengabeko arazoekin
amaituko duen kontzertoa-
ren negoziazio gardena» egin-
go dutela nabarmendu zuen.

Bestetik, sozialistek «elka-
rrizketa, adostasuna eta
alderdien arteko elkar uler-
tzearen» aldeko jarrera dutela
nabarmendu zuen Redondo
Terreros. Ildo horretan,
1982an Felipe Gonzalezek
lehen aldiz erabilitako «Anoe-
tako espiritua» berreskuratu
zuen buruzagi sozialistak
hurrengo adierazteko:
«Estatuko botere publikoek
errespetatu egin behar dituz-
te egun indarrean dagoen
legalitate politiko eta institu-
zionaletik abiatutako inposi-
zioz gabe elkarriketa
batetan euskal alderdiek lor-
tzen ditugun adostasunak».

Miguel Sanzek «Nafarroa isolatu» nahi duela salatu du EAJk

Irene Arrizurieta / Iruñea

NAFARROAKO EAJren
arabera, Miguel Sanz Foru
Erkidegoko presidenteak
«Nafarroa isolatu nahi du».
Horren adibide argia da
herenegun Sanzek adiera-
zi zuen Loyola de Palacio
PPko Europako Parlamen-
tuko diputatuak herrialde-
ra egin bisitan Iruñea
Baionarekin lotuko duen
errepidearen alde eginen
duela Madrilek. Horren
harira, Jose Antonio Ur-
biola Nafarroako Senatu-
rako zerrendaburuak «Pi-
rinioak zeharkatuko di-
tuen bidearen helburua
Kataluinako eta Euskal
Autonomi Elkarte lu-
rralde komantxeak ekidi-
tea da» salatu zuen.

EAJren aburuz, proiektu-
ak ez du «logikarik», eta
Madrilek «Kataluinatik eta
EAetik ez iragaiteko egin
nahi du» erantsi zuen. Hori
aintzat hartuz, Urbiolak
uste du Sanzen jokaera
«Gobernu separatista ba-
tena» dela, eta «Nafarroa
inguruko herrialdeetatik
isolatu» nahi duela.

Era berean, EAJren hel-
buru nagusia «bakea lor-
tzea» dela azpimarratu
zuen Jose Manuel Goikoe-
txea, Kongresurako ze-
rendaburuak. «Pakea lor-
turik, Nafarroa indartu be-
har da, ez bere izakeran,
baizik eta bere iharduera
ahalmenean eta herrialdea
errespetarazten», azpima-
rratu zuen. Ildo honetan,
beharrezkoa da Nafarroa
Euskal Herrian «uztartzea
eta Bartzelonako adieraz-
penaren baitan». «Nafarroa
hemendik at gelditzen ba-
da, berriz komunitate his-
toriko izateko aukera gal-
duko du» gaineratu zuen.

Gizonen t Em kum n uk r r nt sun r k F ru Plana

Em kum n r nt sun r k t z r
r z n n t u t z r h m n r n
r ut n u n Elk r t t Er kun r k h r
z k t, h r r t k r r z r z n
ut r t h r t u n h ut l t uk r
r nt sun l r t z n l un uk ut l.

Iz n m t k
M r t x r n t.

Inf r m z h
F ru l un k r nt sun r k h l kul r t z
ut z k l 13-TL 515115.

berdintasuna

F r u l u n k F r u l u n k
O z t a n z t e r e s t A l t e n t e r e s t